

## NEGUKO KALABAZA

*Cucurbita máxima*



### JAKIN BEHARREKOAK

Neguko kuia (kalabaza) eta potimarroia, udako kuiak eta kuiatxoak (kalabazina) genero botaniko berekoak dira.

Urteroko landareak dira, eskuarki inbaditzaileak. Batzuek zurtoin luze eta herrestaria dute (*Cucurbita máxima*), 4 metro baino luzeagoa izan daitekeena; beste batzuek, berriz, zurtoin laburragoak eta zutikakoak dituzte, zuhaixka antzekoak (*Cucurbita pepo*). Neguko kuiak (kalabazak) iletxo malguz estalitako zurtoin latza du. Hosto handiak, kordiformeak eta zurrunik dira.

Potimarroia mami edo haragi tinko eta irintsua duen kalabaza mota bat da, eta frantsesez duen izenak gaztainari egiten dio aipamen, duen zapoagatik. Kui klasikoetatik bere tamainagatik (txikiagoa baita) eta bere mami tinko eta zuntzik gabekoagatik bereizten da.

### LOREAK

- Bakarkakoak dira, **horiak eta monoikoak**, eta horietatik forma eta kolore ugaritako fruituak sortzen dira (horiak, berdeak, laranja, zuriak...).

### JATORRIA

- **Kukurbitazeoen jatorria eztabaida-iturri da.** *Cucurbita máxima* izenekoa Brasil edo Peru aldekoa dela dirudi. Cristobal Colon nabigatzaileari zor diogu Europara ekarri izana, Amerikatik itzuli zenean, indiarrek milaka urte baitzeramaten hura landatzen eta jaten (fruituak eta haziak).

## KLIMA

- Kui hauek **klima beroetakoak** dira, eta eguzkia behar dute.

## ERASO NAGUSIAK

- **Euli zuria:** hostoak horitu egingo dira euli zuri txikien eraginez;
- **Antraknosia:** hostoak eta fruituak orban marroiz estaltzen dituen gaisotasun kriptogamikoa da;
- **Kladosporiosia:** gaisotasun kriptogamikoa da; landare guztia koloniza dezakeen onddo bat da, eta bere sintomak dira orban grisazkak zurtoinetan eta fruituetan;
- **Oidioa:** hostoak hauts itxurako orban zuriskaz betetzen dira;
- **Ustedura:** hostoak, zurtoinak eta fruituak orban bigun batzuz betetzen dira hasiera batean;
- **Landare-zorria:** batzuek hostoei eta zurtoinei erasotzen diete; beste batzuek, lepoari, eta hauek dira arrakutsuenak, landarea honda baitezakete.

## LANDATZEA / EREITEA

- Apirilean ereingo da, babes bero baten azpian, edo zuzenean lurrian, eskualderik suabeenetan.
- Hiru edo lau hazi bota: lehenengo kasuan, zohikatza (turba) duen lorontzi bakoitzeko; bigarrenean, zulo bakoitzaren barruan. Ontzietakoak lurrera alda itzazu kanpoko tenperaturak (15°C) aukera ematen duenean, eta hasieran landareak babestu (kanpaiak, tunelak...).
- Zulo bakoitzean garapenik handiena izan duen landarea utzi, eta besteak kendu.
- 1,20-1,50 metro arteko tartea utzi landareen artean.
- Haziak 2 cm lur arinarekin estal itzazu.
- Kontuan izan **landare gazteak bare eta barraskiloetatik babestu** beharko dituzula!

## Zaintzak

Simaur edo konpostetan aberatsa den lurra behar dute. Hain zuzen ere, aprobeztatu eta konpost tontorraren gainean zuzenean landa dezakegu, eta konpostari itzala emango dio.

Hainbat palakada simaur edo konpost bota ezazu landatzeko egindako zulo bakoitzean.

Fruituak agertzen direnetik aurrera, konpost zaharra zabaldu hamabost egunero.

Uretan diluitutako asun-saldaz ere urrezta ditzakezu.

## HAZKUNTZA GARAIAK

- Gomendagarria da babes bat (tunel bat, esate baterako) hilabete inguruan, ereintza zuzenaren edota maiatzeko landaketan ondoren.
- **Uda garaian lurra fresko gorde ezazu**, ureztatu, aitzurtu eta jorratuz (lurreko barietateetan hau errazagoa da landareak gazteak diren bitartean), bai eta mendiskak eginez (konposta jarriz oin bakoitzaren inguruan), lehortea baldin badago. Landareari lauzpabost hosto ateratzen zaizkionean, kimatu zurtoina bigarren hostotik gora. Ondoren, kimatu azkenengo fruituaren ondorengo bigarren hostoa baino goragotik lehenengo kimaketaren ondoren sortu diren sustrai sekundarioak.
- Jar itzazu fruituak taulatxo baten edo buruz gora jarritako otarre baten gainean, **lurra ukitzen egon ez daitezten**. Fruitu handiak lortu nahi badituzu, oin bakoitzeko bi edo hiru bakarrik gorde. Emaiztarik eman ez duten zurtoinak kendu.
- Zurtoin sendoen sekzio batzuk lurrez estal ditzakezu, horrek landareari indar handiagoa emango dioten sustrai sekundarioak sortuko baititu

## ELKARKETAK

- Lurra aberatsa bada, **arto gozoarekin batera erein daiteke**.

#### **UGALKETA**

- **Hazi bidez.** Zaila da barietateak puru gordetzea, hibridazio naturalagatik.

#### **BILKETA**

- Kuien kontserbatzioa haiek duten heltze-mailaren arabera da: **pedunkuluak lehor egon behar du.** Egurrezko apala batean jar itzazu, oso hotza ez den tenperaturan (15°C inguru).
- **Zapore eta nutrizio kalitaterik onenak (azukreen proportzioa) urtarril aldera lortzen dira.** Fruitu oso handiak lortu nahi badituzu, landare bakoitzeko bakarra gorde behar duzu, baina kontsumorako hobe da landare bakoitzeko bospasei fruitu izatea.

**Iturriak:** Tratado práctico de horticultura, Amenabarreko Baserritarren Kolektiboa.

## CALABAZA DE INVIERNO

*Cucurbita máxima*



### DEBES SABER

Las calabazas de invierno y la potimarrón, al igual que las calabazas de verano y los calabacines, pertenecen al mismo género botánico.

Se trata de plantas anuales, generalmente invasoras, unas con tallos largos y rastreros (*Cucurbita máxima*), que pueden sobrepasar los 4m de longitud; las otras presentan tallos más cortos y erguidos, que forman una mata arbustiva (*Cucurbita pepo*).

La calabaza de invierno tiene tallos ásperos cubiertos de pelos flexibles. Las grandes hojas son cordiformes y rígidas.

### FLORES

- **Son solitarias, amarillas y monoicas**, y de ellas nacen frutos de variadas formas y colores (amarillos, verdes, naranjas, verdes, blancas,...). La potimarrón es una variedad de calabaza de carne firme y harinosa, cuyo nombre en francés hace referencia a la castaña, por su sabor. Se distingue de las clásicas calabazas por su tamaño, más pequeño, y su carne densa y exenta de fibras.

### ORIGEN

- **El origen de las cucurbitáceas es controvertido.** *Cucurbita máxima* parece ser originario de Brasil o de Perú. Cristóbal Colón las introdujo en Europa a su regreso de América, donde los indios las cultivaban y consumían (frutos y semillas) desde hacía varios miles de años.

## CLIMA

- Estas calabazas se cultivan en climas cálidos y en una exposición soleada.

## PRINCIPALES ATAQUES

- Mosca blanca (las hojas amarillean debido a la presencia de pequeñas moscas blancas).
- Antracnosis (enfermedad criptogámica que cubre las hojas y los frutos de manchas marrones).
- Cladosporiosis (enfermedad criptogámica cuyo hongo puede colonizar la planta entera y cuyos síntomas son manchas grisáceas sobre los tallos y frutos).
- Oídio (las hojas se cubren de manchas blanquecinas pulverulentas).
- Podredumbre (las hojas, tallos y frutos se cubren inicialmente de manchas blandas).
- Pulgón (algunos atacan las hojas y los tallos, y otros el cuello; estos últimos son los más peligrosos, ya que pueden destruir la planta).

## PLANTACIÓN / SIEMBRA

- Se siembra en abril, bajo una protección cálida, o directamente en la tierra en las regiones más suaves, depositando para ello tres o cuatro semillas en cada maceta, o en cada hoyo.
- Se deben trasplantar las macetas a tierra cuando la temperatura exterior lo permita (15°C) y proteger las plantas al principio (campanas, túneles...).
- Conviene conservar la planta más desarrollada de cada hoyo y eliminar las otras.
- Dejaremos una distancia entre plantas de 1,20-1,50 m.
- Conviene asimismo recubrir las semillas con 2 cm de mantillo.
- ¡Recuerda que debemos **proteger las plantas jóvenes de las babosas y los caracoles!**

## Cuidados

Necesitan una tierra muy rica en estiércol o compost. De hecho, podemos aprovechar y sembrarla directamente sobre el montón de compost, al que dará sombra.

Echaremos varias paladas de estiércol o de compost en el fondo del hoyo de plantación.

A partir de la aparición de los frutos, extenderemos compost viejo cada quince días.

También podemos regar con purín de ortiga diluido en agua.

## CRECIMIENTO

- Es aconsejable prever una protección (un túnel por ejemplo) durante aproximadamente un mes después de la siembra directa o de las plantaciones de mayo.
- Durante el verano, mantendremos la tierra fresca mediante riegos, binas y escardas (en las variedades rastreras, esto es más fácil cuando las plantas son jóvenes), así como acolchados (de compost, alrededor de cada pie) en caso de sequía. Cuando la planta tenga cuatro o cinco hojas, despuntaremos el tallo por encima de la segunda hoja. A continuación, **despuntaremos los tallos secundarios que se hayan desarrollado como consecuencia del primer despunte**, cortando por encima de la segunda hoja después del último fruto.
- Conviene colocar bajo los frutos una tablilla o una banasta dada la vuelta, para **evitar que entren en contacto con la tierra**. Si queremos obtener frutos grandes, conservaremos solamente dos o tres en cada planta.
- Debemos **eliminar los tallos no productivos**. Podemos recubrir con tierra algunas secciones de los tallos robustos, lo que provocará arraigamientos secundarios que darán mayor vigor a la planta.

## ASOCIACIÓN

- En una tierra rica se puede asociar con el maíz dulce.

#### MULTIPLICACIÓN

- Por semilla. Es difícil conservar puras las variedades debido a la hibridación natural.

#### RECOLECCIÓN

- **La conservación de las calabazas depende de su grado de maduración:** el pedúnculo debe estar seco. Conviene colocarlas sobre una estantería de madera, a una temperatura no muy fría (15°C aproximadamente). Las óptimas calidades gustativas y nutricionales (proporción de azúcares) se alcanzan hacia el mes de enero.
- Si queremos obtener frutos muy grandes solo debemos **conservar uno por planta**, pero para el consumo es preferible tener cinco o seis frutos por planta.

**Fuentes consultadas:** Tratado práctico de horticultura, Amenabarreko Baserritarren Kolektiboa.